

HAZPARNE (*)

Ber'ohantzea choriak maite bertze guzien gainetik.
Berea baino gochoagorik ez du kausitzen bihirik.
Badaki segur badela zombait hura ez bezalakorik,
Bainan berea maiteago du, ez luke nahi bertzerik.

Nik ere badut ohantzeño bat itsuski maite dutana.
Han sortua naiz, han berean naiz ene haurrean egona.
Nolaz ez diot nik hari ekhar amodio handiena?
Bai enetako chokho hura da egiazko zoriona.

Airetan gora altchatzen dela, huna Urtsuko mendia.
Haren oinetan horra nun dagon Hazparne airos jarria.
Lekhu pollita eta gochoa, eskualde choragarria.
Hire parerik mundu guzian ez duk, Hazparne herria.

Hortche elizak bere dorrea derauka aphur bat gora.
Plazako etche eta karrikak haren inguruan dira.
Nola multchoan biltzen baitira haurrak amaren altzora,
Elizak hemen hurbiltzen ditu guziak elgarretara.

Ald'orotarat ditu Azparnek bere bazterrak hedatzen.
Buru batetik bertzeradino, zer eremuak dituen!
Hekiek dute bai gehienik edertzen e'aborasten.
Hek ez balitu, oi zer ontasun baliosak luzken galtzen!

Maite ditiak, herri ederra, hire lur hoin aberatsak,
Udan ogiek urhe kolore ezartzen dituzten landak,
Larrazkenean beltzatzen diren hire mahasti paretak.
Horier dener esker detzazkek haz holako jende ketak.

Maite ditiat hire larreak bai eta ere oihana.
Eremu zabal hetan denetan, zer bake gozoa dena!
Oro ichilik, salbu choria sasian hichtuz dagona.
Eta errekan ur chirripa bat jauzika kantuz dohana.

Gora Hazparne, ene herria, chuti handi eta azkar!
Ez dauta hire haur izaiteak urgulu bat eman behar?
Ukhanen diat bethi hiretzat atchikimendu eta khar,
Goraki bethi errepikatzen diat naizela Hazpandar!

Jean Hiriart-Urruty

(*) Jean Hiriart-Urruty-k gazte denboran Uztaritzeko apaizgaitegian zelarik, *Hazpame* egin bertsoak, bere eskuz idatziak.